

Ondasunen esportazioek % 9,4 egin dute behera 2025eko urrian Euskal AEn

2025eko lehen hamar hilabeteetako metatuan, esportazioek % 4,3ko jaitsiera izan dute, produktu energetikoen beherakadaren ondorioz (-% 40,1)

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko **ondasunen esportazioek** urte arteko % 9,4ko beherakada izan dute 2025eko urrian. Zenbatekoa 2.829,4 milioi eurokoa izan da (3.122,3 milioi eurokoa aurreko urteko hilabete berean). *Produktu energetikoen* esportazioek % 39,8 egin dute behera, eta *produktu ez-energetikoen* esportazioek, berriz, % 6,9.

Urrian, merkataritza-saldoa positiboa izan da (515,2 milioi eurokoa), eta estaldura-tasa % 122,3ra iritsi da.

Beherakadarik handiena izan duen lurralde historikoa Bizkaia izan da (-% 16,0), *produktu ez-energetikoe* eta, batez ere, *produktu energetikoe* izan duten beherakadaren ondorioz (-% 10,3 eta -% 40,2, hurrenez hurren). Araban, esportazioek % 9,1 egin dute behera, eta Gipuzkoan, berriz, % 1,5.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urria 2025

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Urria			Urria		
	2024	2025	Gehikuntza (%)	2024	2025	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	3.122.268	2.829.432	-9,4	2.440.476	2.314.272	-5,2
ENERGIAZKO GAIAK	232.592	140.062	-39,8	604.288	506.655	-16,2
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.889.676	2.689.371	-6,9	1.836.187	1.807.618	-1,6
URTEKO METATUA	26.205.018	25.088.340	-4,3	22.834.170	22.352.725	-2,1
ENERGIAZKO GAIAK	1.837.459	1.101.330	-40,1	6.044.641	4.755.143	-21,3
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	24.367.559	23.987.010	-1,6	16.789.529	17.597.582	4,8
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	917.874	834.085	-9,1	601.067	568.732	-5,4
URTEKO METATUA	7.545.983	7.506.986	-0,5	5.071.932	5.585.093	10,1
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.215.443	1.021.395	-16,0	1.362.687	1.265.256	-7,1
URTEKO METATUA	10.252.213	9.021.206	-12,0	13.243.090	12.042.086	-9,1
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	988.952	973.952	-1,5	476.722	480.284	0,7
URTEKO METATUA	8.406.822	8.560.148	1,8	4.519.148	4.725.547	4,6

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2025eko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** % 5,2 egin dute behera, 2.314,3 milioi euroko zenbatekoarekin. Inportazio *energetikoak* % 16,2 jaitsi dira, eta *ez-energetikoak*, berriz, % 1,6. Bizkaiko inportazioak % 7,1 jaitsi dira, eta Arabakoak % 5,4. Gipuzkoako inportazioek, berriz, % 0,7ko igoera izan dute.

Produktuen arabera (muga-zergen partidak)

Xehetasunetan sartuta ikus daitekeenez, 969 **esportazio-partiden** sailkapenaren buruan “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” daude, 300,8 milioi euro merkaturatuta eta % 5,6ko jaitsierarekin aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta ondoren datoz “*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*” (177,3 milioi euro eta % 13,6ko jaitsiera), “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (156,5 milioi euroko esportazioak eta % 18,2ko igoera), “*Petrolioaren olio finduak*” (129,4 milioi euro eta % 16,3ko jaitsiera) eta “*Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak*” (70,9 milioi euro eta % 169,2ko igoera). Urrian, bost partida horiek merkaturatutako guztizkoaren % 29,1 izan dira, eta 834,9 milioi euroko balioa izan dute guztira.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	3.122.268	2.829.432	100,0	-9,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	318.797	300.833	10,6	-5,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	205.206	177.308	6,3	-13,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	132.374	156.463	5,5	18,2
Petrolioaren olio finduak	154.571	129.404	4,6	-16,3
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	26.353	70.934	2,5	169,2
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	66.720	52.241	1,8	-21,7
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	32.473	50.976	1,8	57,0
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	70.376	48.696	1,7	-30,8
Turboerreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagarriak barne	37.687	46.771	1,7	24,1
Kaubuzko pneumatiko berriak	92.226	40.657	1,4	-55,9
Transformadore elektrikoak, bihurtzailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	29.312	36.894	1,3	25,9
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	34.247	35.650	1,3	4,1
Burdina edo altzairuzko gainerako enbrazatutako	35.441	35.004	1,2	-1,2
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	58.686	34.922	1,2	-40,5
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketa-erako euskarriak	31.622	29.596	1,0	-6,4
Kobre findu gabe: fintze elektrolitikoak kobre anodoak	35.333	29.092	1,0	-17,7
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	26.861	28.618	1,0	6,5
Arrain izoztua xerratu gabe	33.428	25.904	0,9	-22,5
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbrazatutako moldeatu batzuk	21.959	25.472	0,9	16,0
Ardoa, mahats freskoarena	29.207	24.454	0,9	-16,3
Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morrolo eta giltzak	23.255	24.179	0,9	4,0
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	26.555	23.798	0,8	-10,4
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	15.607	22.549	0,8	44,5
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	19.600	21.874	0,8	11,6
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	22.889	21.674	0,8	-5,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

25 partidarik garrantzitsuenen artean, honako partida hauen urte arteko hobekuntzak nabarmentzen dira: “*Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak*” (% 57,0), “*Turboerreaktoreak, turbopropultsoreak eta gainerako gas-turbinak, piezak eta osagarriak barne*” (% 24,1) eta “*Transformadore elektrikoak, bihurtzailu estatikoak eta erreaktantzia-bobinak*” (% 25,9).

Kontrako ildotik, adierazi beharra dago honako partida hauek izan duten beherakada: *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”*, 48,7 milioi euro esportatuta, hots, aurreko urtean baino 21,7 milioi euro gutxiago (% 30,8 gutxiago); *“Kautxuzko pneumatiko berriak”*, 2024ko urriko 92,2 milioi eurotik 2025eko urriko 40,7 milioi eurora jaitsi dena (% 55,9ko jaitsiera); eta *“Hodiak eta profil hutsak, soldadurarik gabe, burdinazkoak edo altzairuzkoak”*, % 40,5eko jaitsierarekin.

Arabian, hamar partida nagusien artean, honako hauen esportazioen gorakada nabarmendu da: *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (% 18,1) eta *“Hodiak eta hodi-osagarriak [adibidez: lotuneak (errakoreak), ukondoak, zorroak], nikelezkoak”* (% 925,4).

Aitzitik, salmentek behera egin dute honako hauetan: *“Ibilgailu automobilaren zatiak eta osagarriak”* (-% 27,2), *“Hodiak eta profil hutsak, soldadurarik gabe, burdinazkoak edo altzairuzkoak”* (-% 42,5) eta *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (12,3 milioi euroko esportazioak, hots, aurreko urtean baino 47,9 milioi euro txikiagoak, % 79,6ko jaitsierarekin).

Automobilgintzaren sektoreko partidak, aurreko urteko urriarekin alderatuta, 47,6 milioi euro jaitsi dira (% 8,9), hots, 532,4 milioi eurotik 484,8 milioi eurora.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	917.874	834.085	100,0	-9,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	296.641	284.857	34,2	-4,0
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	132.270	156.159	18,7	18,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	43.311	31.543	3,8	-27,2
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	45.318	26.041	3,1	-42,5
Ardoa, mahats freskoarena	27.349	23.407	2,8	-14,4
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	15.541	16.880	2,0	8,6
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	12.981	14.729	1,8	13,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	60.184	12.251	1,5	-79,6
Hodiak eta hodiaren osagarriak [adibidez: loturak (erragailuak), ukondoak, zorroak], nikelezkoak	1.111	11.389	1,4	925,4
Kobreko zakarrak eta hondakinak	8.991	8.819	1,1	-1,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkatutzaren estatistika

Bizkaian, hamar partida nagusien artean, honako hauen esportazioek izan duten igoera nabarmendu da: *“Turboerreaktoreak, turbopropultsoreak eta gainerako gas-turbinak, piezak eta osagarriak barne”* (46,7 milioi euroko esportazioak, hots, aurreko urtean baino 9,6 milioi euro handiagoak, % 25,9ko igoerarekin) eta *“Elektrizitatea kontrolatzeko edo banatzeko koadroak, panelak eta euskarriak”* (17,6 milioi euroko esportazioak, hots, % 54,8 handiagoak).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.215.443	1.021.395	100,0	-16,0
Petrolioaren olio finduak	152.261	127.114	12,4	-16,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	77.841	59.127	5,8	-24,0
Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	37.117	46.730	4,6	25,9
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	35.333	29.092	2,8	-17,7
Kaubuzko pneumatiko berriak	31.349	27.697	2,7	-11,6
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	20.977	25.120	2,5	19,8
Arrain izoztua xerratu gabe	32.777	24.670	2,4	-24,7
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	24.807	23.249	2,3	-6,3
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	21.356	20.554	2,0	-3,8
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	11.345	17.558	1,7	54,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Aitzitik, behera egin dute salmentek honako hauetan: “*Petrolioaren olio finduak*” (127,1 milioi euroko esportazioak, hots, aurreko urtean baino 25,1 milioi gutxiagokoak, % 16,5eko jaitsierarekin), “*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*” (-% 24,0) eta “*Xerratu gabeko arrain izoztua*” (-% 24,7).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urria 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	988.952	973.952	100,0	-1,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	84.054	86.639	8,9	3,1
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	18.077	67.195	6,9	271,7
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	32.406	50.929	5,2	57,2
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	67.300	45.549	4,7	-32,3
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	44.138	35.399	3,6	-19,8
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	23.478	24.805	2,5	5,7
Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	21.099	22.040	2,3	4,5
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	29.948	21.319	2,2	-28,8
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	13.375	21.241	2,2	58,8
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	19.265	18.044	1,9	-6,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan, honako hauetan izandako igoerak azpimarra daitezke: “*Trenbideetarako edo antzekoetarako zatiak eta osagarriak*” (% 271,7, 67,2 milioi euroko esportazioekin), “*Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak*” (% 57,2, 50,9 milioi euroko esportazioekin), eta “*Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)*” (% 58,8, 21,2 milioi euroko esportazioekin). Aitzitik, salmentek behera egin dute honako hauetan: “*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak*” (2024ko urrian baino 21,8 milioi euro gutxiago, hots, -% 32,3), “*Txorrota-gaiak, balbulak eta antzeko atalak hodietarako*” (8,7 milioi euro gutxiago, hots, % 19,8 gutxiago) eta “*Hamar pertsona edo gehiago, gidaria barne, garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (21,3 milioi euroko esportazioak, hots, % 28,8 txikiagoak).

“Ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm” partidako inportazioak % 62,4 igo dira, eta “Petrolioaren olio finduak” partidakoak, berriz, % 52,4 jaitsi dira

Inportazioak muga-zergen partiden arabera aztertuz gero ikus daitekeenez, garrantzitsuenak, hots, “Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak” partidak, guztizkoaren % 16,3 biltzen duenak, % 13,3ko igoera izan du. Era berean, gorakada esanguratsua izan da honako hauetan: “Ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm” (% 62,4), 28,5 milioi eurotik 46,3 milioi eurorako igoerarekin, eta “Telefonoak eta ahotsa, irudia edo bestelako datuak transmititzeko edo jasotzeko gainerako gailuak” (% 335,8). Aitzitik, beherakada handia izan da honako partida hauetako inportazioetan: “Petrolioaren olio finduak” (-% 52,4), 204,1 milioi eurotik 97,1 milioi eurorako jaitsierarekin, “Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak” (-% 25,6), 90,8 milioi eurotik 67,5 milioi eurorako jaitsierarekin, eta “Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak” (-% 51,1), 65,2 milioi eurotik 31,9 milioi eurorako jaitsierarekin.

Jatorri eta helmugako herrialdeak, 2025eko urria

Urrian, honako herrialde hauek kokatu dira esportazioen sailkapeneko lehenengo postuetan:

- Alemania:** 441,9 milioi euroko balioa duten produktuak jaso ditu gure Erkidegotik, % 129,6ko estaldura-tasarekin.
- Frantzia:** 424,6 milioi euroko balioa duten ondasunak esportatu dira herrialde horretara, % 226,2ko estaldura-tasarekin.
- Erresuma Batua:** 194,8 milioi euroko balioa duten esportazioak egin dira herrialde horretara, % 321,0ko estaldura-tasarekin.
- Italia:** 168,3 milioi euroko esportazioak bideratu dira herrialde horretara, eta % 132,8ko estaldura-tasa lortu da.
- Portugal:** herrialde horretara bideratutako salmentak 129,2 milioi eurora iritsi dira, % 186,7ko estaldura-tasarekin.

Bost herrialde horiek esportazio guztien % 48,0 jaso dituzte. Haietako lau EB-27koak dira (esportazioen % 61,3 jaso dira bertan).

Urrian, inportazio gehienak ondorengo herrialdeetatik etorri dira, ordena honetan: Alemania (341,0 milioi euro), Frantzia (187,7 milioi euro), Txina (169,4 milioi euro), Mexiko (139,9 milioi euro) eta Estatu Batuak (137,1 milioi euro).

2025eko lehen hamar hilabeteetako metatuan, esportazioek % 4,3 egin dute behera, eta 2024ko aldi berean baino 1.116,7 milioi euro gutxiago izan dira

Lehen hamar hilabeteetan, Euskal AEko esportazioek % 4,3ko jaitsiera izan dute aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, eta, beraz, 1.116,7 milioi euro gutxiago lortu dira. Esportazioen zenbatekoa 25.088,3 milioi eurokoa izan da aldi horretan.

Euskal AEko esportaziorik handienak Bizkaikoak izan dira, 9.021,2 milioi eurokoak. Gipuzkoakoak 8.560,1 milioi eurora iritsi dira, eta Arabakoak, berriz, 7.507,0 milioi eurora. Nolanahi ere, Bizkaiko esportazioek % 12,0ko jaitsiera izan dute, eta Arabakoek % 0,5ekoa. Gipuzkoako esportazioak, berriz, aurreko urtekoak baino % 1,8 handiagoak izan dira.

Produktu mota kontuan hartuta, Euskal AE osoan “Produktu ez-energetikoek” izan dute esportazioen zenbatekorik handiena, 23.987,0 milioi eurekin, hots, 2024ko lehen hamar hilabeteetan baino % 1,6 gutxiagorekin. Jaitsiera hori ez da homogeneoa izan. Izan ere, Bizkaiko esportazio ez-energetikoak % 5,9 jaitsi dira, Arabakoak % 0,5, eta Gipuzkoakoak, berriz, aurreko urtekoak baino % 1,8 handiagoak izan dira. “Produktu energetikoen” esportazioek % 40,1eko jaitsiera izan dute urtetik urtera.

“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” partida izan da esportazioen buru, 2.547,7 milioi euroko esportazioekin eta % 17,1eko igoerarekin. Muga-zergen partida nagusien artean, esportazioen gorakadarik handienak honako hauetan gertatu dira: “Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak” (365,4 milioi euroko esportazioak, hots, % 100,1 gehiagokoak), “Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak” (430,5 milioi euroko esportazioak, hots, % 88,6 handiagoak) eta “Soja-olioa” (189,8 milioi euroko esportazioak, hots, aurreko urteko aldi berean baino 116,2 milioi euro handiagoak, % 157,6ko igoerarekin). Aitzitik, partida nagusietako hiru murriztu dira: “Kautxuzko pneumatiko berriak” (-% 34,5, hots, 305,3 milioi euro gutxiago), “Petrolioaren olio finduak” (-% 21,7, hots, 267,9 milioi euro gutxiago) eta “Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak” (-% 15,0, hots, 295,9 milioi euro gutxiago).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Urria 2025

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	25.088.340
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.547.673
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.682.620
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.171.965
4	2710	Petrolioaren olio finduak	965.602
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	579.710
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	493.350
7	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	485.049
8	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	430.514
9	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	410.674
10	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsaizaleak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	400.349
11	8605	Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	365.375
12	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	342.453
13	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	330.509
14	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako enbrazaturak	310.479
15	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketa euskarriak	286.135
16	8428	Igoailuak, eskailera mekanikoak, garraigailuak, etab.	246.292
17	9990	Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	241.696
18	8702	Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	227.918
19	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbrazatura moldeatutak	221.166
20	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	205.387
21	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	201.013
22	8301	Metal arruntzko giltzarra, sarraila, morroilo eta giltzak	200.015
23	7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundizio-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	196.681
24	8501	Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	195.773
25	2204	Ardoa, mahats freskoarena	190.560

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkatatzaileen estatistika

2025eko lehen hamar hilabeteetako sailkapenaren arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztiaren % 15,0ekin eta 3.767,4 milioi eurekin. Oso hurbil geratu da Frantzia, 3.720,6 milioi eurekin (guztizkoaren % 14,8). Haien atzetik, honako hauek kokatu dira: Erresuma Batua (1.640,7 milioi euro, hots, % 6,5), Italia (1.521,1 milioi euro, hots, % 6,1) eta Estatu Batuak (1.462,8 milioi euro, hots, % 5,8). Bost herrialde horien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioen % 48,3 bildu dituzte.


Euskal AE osoko inportazioen metatua 22.352,7 milioi eurora iritsi da. Urtetik urterako konparazioa eginez gero, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 481,4 milioi euro eta % 2,1 txikiagoa izan da. Izan ere, Bizkaian (12.042,1 milioi euro) % 9,1 gutxiago erosi da (-1.201,0 milioi

euro). Bestalde, Arabako eta Gipuzkoako inportazioek gora egin dute. Araban, 513,2 milioi euro gehiago izan dira (5.585,1 milioi euro guztira), eta Gipuzkoan, berriz, 206,4 milioi euro gehiago (4.725,5 milioi euro guztira).

“*Produktu ez-energetikoen*” inportazioek % 4,8ko igoera izan dute, baina “*Produktu energetikoen*” inportazioek, berriz, % 21,3ko jaitsiera.

Inportazioei lotutako muga-zergen partidarik garrantzitsuenak (“*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*” partidak) % 27,2ko jaitsiera izan du, eta, beraz, aurreko urteko aldi berean baino 1.149,6 milioi euro gutxiago izan dira (3.081,1 milioi euro guztira). Beherakada hori, neurri batean, petrolioaren prezioak izan duen jaitsieraren ondorioz gertatu da. Hala ere, esportatutako tonak aztertuz gero ere, % 15,7ko beherakada gertatu da (8.077.235 tonatik 6.812.405 tonara). Olio gordinen inportazioekin batera, “*Petrolioaren olio finduak*” partidan izandako beherakadak nabarmendu dira, 1.385,7 milioi eurokoak (-% 3,6). Biak batuta, guztizkoaren % 20 izan dira.

2025eko urtariletik urrira bitartean, Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 2.735,6 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta estaldura-tasa % 112,2ra iritsi da.



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62